

ЛОТРАДА

AITZIBER ETXEBERRIA



n a r r a t i b a

NOMADA

Narratiba, 97

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko azaroan

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Aitziber Etxeberria

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-167-7

L. G.: SS-2164/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Aitziber Etxeberria

NOMADA



*Maitasunez,
nire gurasoei;
Iker eta Aritzi*

“Iragana kontrolatzen duenak –zioen Alderdiaren
esloganak–, etorkizuna kontrolatzen du: oraina
kontrolatzen duenak, iragana kontrolatzen du”.

1984, George ORWELL

Hanoi, 2000ko urtarrilak 25

Orainak iragana lausotu ohi du, eguzki izpien argitan distiratu zuena, oroimenaren gandupean ezkututzen du. Nola jakin, zer den erreala eta zer gure garunak maisuki eraikiriko irudikeria? Horra hor gure bizitzaren txantxa makabroa. Benetakoak ote gure oroitzapenak ala aktore makillatu bat bezain faltsuak? Hari ikusgarririk ez dugun txotxongiloak baino ez garela pentsatu izan dut sarritan.

Ez dakit nomada bihurtu naizen ala betidanik izan dudan sentimendu, sen edo bizimodu hau. Dakidan gauza bakarra da, aberriengandik urrundu egin naizela. Banderen ubera baino, bizitzak bihotzaren taupaden bidezidorra jarraitzen duela. Sentimenduek, izarrek bezalaxe, hizkuntza sekretu bat dutela. Gau oskarbi batean, estepa gorrian, mantetan gorputza bildu eta gau ilunean zeru izartsua behatzen jartzen zarenean, ikusten duzun handitasunak txiki sentiarazten zaituela. Eta txiki sentitzen zaren une berezi horretantxe, bizipenek eta bizitzak berak ere, beste kolore bat hartzen dutela, sentimenduak gori-gori, bihotza saltari eta oroitzapenak dantzari hasten direla eta lipar batez, zure

bizitza pelikula bat bailitzan zure begien aurrean igarotzen dela, fotogramez fotograma.

Sinesgaitza badirudi ere, efektu hauxe lortu du Kozlov enbaxadoreak, nire bizitza fotogrametan ikusaraztea, hain zuzen ere.

Hanoiko Errusiar Enbaxada
Txosten berezia

- **Eskatzailea:** Ivan Kozlov enbaxadorea.
- **Gaia:** Aurreko enbaxadoreak itxi gabe utziriko txostenen azterketa.
- **Helburua:** Enbaxadaren egungo egoera zehatzaren berri izatea.
- **Segurtasuna maila:** Arrunta.
- **Eskaera data:** 2000ko urtarrilaren 12a.
- **Txostena burutzeko amaiera data:** 2000ko urtarrilaren 19a.

1 MOT*

Hanoi, 2000ko urtarrilak 20

Duela bi egun errusiar enbaxadako gutuna jaso nuenetik, ezin dut gutuneko gonbidapenean ez den beste ezertan pentsatu. Orain denbora gutxi pasaporte berria egiteko aurkeztu nuen eskaria aprobetxatuz, bera ezagutu eta berarekin elkarrizketa bat izatera gonbidatu nau oso modu formalean Ivan Kozlov enbaxadore berriak.

Lagunek gehiegi larritzen naizela esan didate, lasai egoteko, ez dela ezer izango. Hanoin hainbeste denbora daraman errusiarra izanik, enbaxadore berriak nire berri izan nahiko duela, besterik ez. Nik, ordea, badakit haizeak daramatzan hitzak baino ez direla. Agure zahar bat lasaitzeko asmoz, errukiaren sorotik korrika eta presaka irauliriko hitz onberak baino ez. Badakit ditzosozko gutun honek nire bizitzaren norabidea, eta agian, baita noranzkoa ere eraldatuko dituela. Barruan sentitzen dut, bihotzean, euria egin behar duenean nire hezur zaharrek abisua ematen didatenean bezala. Barne alarma bat piztu zait eta momentuz ezerk edo inork ezin du isilarazi.

Kasualitateak ez baitira existitzen. Ez horixe! Aspaldi ikasi nuen hori. Gertakari guztiek dute iturburu eta helmuga bat, montzoiek bezala. Batzuk ahulagoak dira; besteak, berriz,

* Mot: "bat" zenbakia vietnameraz (Editorearen oharra)

beren bidean topatzen duten guztia erausten, txikitzen, porrokatzen dute. Eta nik, hirurogeita hamalau urte bete berrirekin, ez dakit horrelako montzoi bortitz bat jasateko gai izango naizen.

Zoriaren gurpila martxan jarri da. Ez naiz ni izan haren bila joan dena, ez. Gurpil madarikatu hori izan da bere kabuz nire aurrean jarri eta bere kontra tupust egitera behartu naue-na. Vietnamgo Antzerki Konpainia Nazionala, Uretako Txo-txongiloen ikuskizunarekin Europara joango zela eta ni ere beraiekin nindoala jakinarazi zidaten unetik jakin nuen nire bizitzan aro berri bat hastera zihoala. Adin honekin aro berri bat hastera noala esateak halako lotsa edo erreparo apur bat eman beharko lidakeela ere pentsatu izan dut, baina, tira...

Buruari hainbeste eragin beharrean, ohetik jaiki eta eguna hastea erabaki dut. Kanpoaldean, Hanoi hiri zaharra nagiak ateratzen ari da. Goizeko bost eta erdiak izan arren, bada jada nahikoa iskanbila. Milaka motorren zarata gailentzen bada ere, jendearen oihu eta elkarrizketen arrastoa ere iristen zait.

Leihorik banu kalera begira emango nituzke egunaren lehen ordu hauek. Horixe da nire etxeari falta zaiona: kanpoaldera ematen duen begiren bat. Vietnamgo ohiturari jarraiki, aitzitik, etxe estu eta luze bateko gela batean bizi naiz. Etxearen erdialdean geratzen denez itsua da; kalea ikusi nahi izanez gero, bizilagunarenera joan beharra dut. Dena den, eguneko ordurik gehienak kalean ematen ditudanez, ez zait iruditzen sakrifizio handiegia denik sator zulo honetan lo egitea.

Pasillora irten eta beste bizilagunekin konpartitzen dudan komunera joan naiz. Zorionez, hutsik dago. Barrura sartu eta ahal dudan azkarren garbitu dut nire burua. Ez dut denbora gehiegi eman nahi gelatxo txiki honetan. Norbait sartzeko zain egongo delako batetik, eta bestetik, ezuste eta posibilitatez beteriko unean promesa diren egunsentiko ordu hauek benetan gogoko ditudalako.

Ohe, arbasoen aldare eta sukalde lanak egiten dituen txokoaz osaturiko nire etxetxora sartu eta bezperan prestaturiko arropak jantzi ditut. Errusiar enbaxadara joan behar dudanez, orain pare bat hilabete erosiriko galtza beltzak, mao lepoa duen alkandora zuri mahuka luzea eta ia inoiz erabiltzen ez ditudan zapata beltzak jantzi ditut. Nire oinek halako oihu ito bat egin badute ere, ez dago beste erremediorik; badakit enbaxadoreak ez lukeela begi onez joko nire ohiko sandalia erosoekin azaltzea.

Pasaporte eskariaren agiria, pasaporte zaharra eta Partidu Komunistaren afiliazio txartela karpetatxo batean sartu eta, gehiago berandutu gabe, kalera irten naiz. Goizeko seiak diren arren, eguzkia bere habiatik kanpo dago eta jende gehiena egunari ongiatorria ematen ari zaio lagun edo familiarakoekin gosalduz. Neuk ere berdina egiteko asmoa dudanez, Alde Zaharreko kaleetarako bidea hartu dut. Benetan gogoko dut jende eta motorren zalaparta, izerdia etengabe botarazten duen eguzki kiskalgarria eta batez ere, kale bizitza. Leningradek aspaldi galdu zuen Hanoirekin zuen borroka isila.

Hanoiko Errusiar enbaxada *Txosten berezia*

2000ko urtarrilaren 12an Ivan Kozlov kamaradak eskaturiko txostenaren ondorioak:

Txostenei dagokienez enbaxadaren egungo egoera egokia dela jakinarazten dut. Egindako azterketa sakonaren ondorioz, aurreko enbaxadoreak benetan lan txukun eta zehatza egin duela ziurtatzen dut. Bera joan aurretik txosten sekretu gehienak itxita edo ixteko bidean utzi ditu eta txosten arruntei dagokienez, ez da zailtasun apartekorik aurkezten duenik bat ere.

Bada, ordea, nire ustez, zure arreta merezi duen txosten zahar bat. 1972. urteko txosten honetan, orduko sobietar enbaxadore zen Vladimir Morozoven bat-bateko heriotza aztertzen da. Txostena zuzena bada ere, ez da argi geratzen nola izan zen Vladimir kamaradaren heriotza eta orduz geroztik, aparteko kaxoi batean gordeta izan dute zure aurreko guztiek.

Aipagarria, gertakari haren lekuko izan zen Nikolay Zaitsev kamarada oraindik bizirik dagoela eta Hanoin bizi dela, Thang Long Uretako Txotxongiloen Antzokian lan egiten duelarik.

Txostenaren egilea: Sergey Popov

2 HAI

Normalean, Thang Long, Uretako Txotxongiloen Antzokitik ez oso urrun dagoen Hung lagunaren dendan gosaltzen dut, horrek Hungekin egoteko paradaz gain, gosaldur ondoren Hoan Kiem edo Berrezarritako Ezpataren laku inguruan dagoen parkera joan eta Hien lagun minarekin batera tai txi egiteko aukera ematen baitit. Gaur, ordea, ez naiz Hungengana joango. Itxura honekin jantzita ikusiz gero, berehala konturatuko baita zerbait berezia badudala eta ez dut Hungi azalpenik emateko gogorik. Antzokiaz eta txotxongiloez asko dakien arren, ez da sekretu bat mantentzeko gai, eta momentuz, ez dut nire enbaxadako joan-etorriarena mundu guztiak jakiterik nahi.

Beraz, Hoan Kiem lakuaren iparraldean, Hang Dao kale nagusia atzean utzi eta Cho Dong Xuanera, Hanoi duen azoka estalirik handienera, bideratu ditut nire pausotak. Beti gertatu ohi den moduan, oraindik nahikoa goiz den arren, jende ugari dabil bere inguruan. Hanoi hiriaren erdian kokaturik egoteak, halako erakarpen berezi bat sorrazten du berarengana hurbiltzen den edonorengan.

Saltzaile finkoak, hau da beraien postuak ordaintzen ditzutenak, oraintxe hasi dira azaltzen. Hanoi ingurutik fruta eta bestelako barazkiak saltzera datozenak, berriz, atzera eta aurrera dabilta merkatu kanpoan leku egokiren bat topatu

nahian. Banbuzko haga batetik zintzilikaturiko banbu edo zumezko bi otarretan edozer garraia eta sal dezakete vietnamdarrek: arroza, patata, artoa, mandioka, platanok, laranjak, litxiak, marakuiak, gatza... Sorbalden indarra bilakutzen da mugarri bakarra. Saltzaile gehienak emakumeak dira eta zaharrak gainera. Salgaien garraioaren nekezaz bere bizkarrak jada konkorturik dituzte eta beraien ibilera ere, zamaren mirabe bilakatua da.

Pauso motz eta bizkorrek, zango okertuek eta *non la* izeneko txapel konikoaren azpian babesturik ia-ia ikusten ez diren neke aurpegiek, edonon aurki daitekeen saltzaile vietnamdarra osatzen dute. Nik antzokian egiten eta konpontzen ditudan txotxongiloen eredu bizia, inola ere.

Ibai Gorrian barrena doan txalupa bezala pasatu naiz merkatuaren kanpoaldetik: kontu handiz, alegia. Ibaiaren ur arreek bare eta otzantasun itxura ematen badute ere, ibaia harrotzen denean txalupa irauli eta hondora bota dezake. Berdin gertatzen da nekazari hauekin ere: zuregan erreparatzen ez dutela dirudien arren, ustekabean lurrean utzitako otzara batetik eroritako fruta edo barazkiren bat ukituz gero, egundoko iskanbila sor dezakete eta hondaturikoa ordainarazi gainera. Bere txitatxoak babesten dituen oilaloka baino zalapartatsuagoak izaten dira horrelakoetan, emakume zaharrenak batik bat.

Merkatuaren mendebaldeko ertzera iritsi bezain pronto, berehala argitu da nire kopeta. Bai, hantxe da Tuan zaharra bere etxe azpiko dendaren atarian. Bakar-bakarrik dago momentuz. Oraindik ere logura aurpegia nabari zaio. Ohetik

jaiki berria da, seguru. Ez dut katilu hutsik ikusten eseri berria den mahaitxoaren gainean. Ederki, horrela barrua apur bat baretzeko astia izango dut bere anaia etorri eta orkidea-denda irekitzen duten bitartean.

–Egun on, adiskide.

Tuan harriturik geratu da ni han ikustean. Ez baita oso ohikoa. Iluntzean egiten dugu topo normalean, Ly Thai To Handiaren parkera xiangqi, xake txinatarrera, jolastera joaten garenean.

–Egun on, kamarada. Zerbait gertatzen al da?

–Ez, ezer ere ez. Hirekin gosaltzera etorri nauk. Besterik ez.

–Iganderako arropa eta ia inoiz janzten ez dituan zapatak jantzita nirekin gosaltzera etorri haiz?

Tuanen galdera entzun eta bere aurpegi eszeptikoa ikusita irribarre bat lerratu da nirean. Banekien nik Tuanek ez ninduela bakarrik utziko. Lasai hustu dezaket barrua berarekin. Zertarako dira ba bestela lagunak?

–Halaxe duk bai, eta egia dela frogatzeko, ni neu joango nauk Nhaneraino bi pho katilu eder erostera. Gaur gosaria nire kontu.

Eta ezer gehiago esateko astirik eman gabe Nhanen postura bideratu naiz.

Merkatu inguruan ibiltzen da beti Nhan. Bizikleta du garraio bide eta baita lanpostu ere. Etxean prestatutako pho saltzen du. Emaztea eta alaba zaharrena etxeko sukaldean etengabe aritzen dira, bufalorik ahulena ere suspertuko lukeen edari usaintsu hau prestatzen. Barazki, belar usaingarri,

haragi eta noodleak orekarik ederrenean dantzarazten dituzte bi emakume hauek eta Nhanek, berriz, altxor txiki hau Hanoiko merkatura datozen guztien artean dastatzeko aukera ematen du.

Etiket irten aurretik phoz gainezka dauden bi pertzak ondo itxi, bizikletan ondo bermatu eta munduko zirkorik oneneko funanbulistarik ospetsuenaren pare, Hanoiko kale zatatsa eta kaotikoetan trafiko are erogarriagoan murgiltzen da. Ez da bakarra, ordea, Hanoi eta Vietnam osoa ere, bizikleta, moto, edo mila modutako gurdietan imajina daitekeen edozer gauza eramateko gai den artistez josirik baitago.

Inguruko vietnamdar gehienei buru erdi ateratzen die-danez, motoz beteriko kalea zeharkatzen hasi orduko ikusi nau Nhanek. Ez du gehiago itxaron: Tuanen denda aldera begiratu eta hura ere berari begira dagoela ikusirik, bi katilu atera eta burruntzalia dantzan jarri du; berarengana iritsi naitzenerako, bizikletaren eskulekua aprobeztatuz mostradore txiki bat bailitzan jartzen duen oholaren gainean, bi pho-errazio zain ditut. Phoaren usain sarkorrak urdaila ernegarazi dit.

–Egun on, Nhan.

–Egun on, Kolia. Goiztiar zabilta.

Irribarrea eskaini diot ezinbestean Kolia entzun dudanean. Nire izena Nikolay bada ere, Errusian txikigarri goxo-agoa erabiltzeko ohitura handia dago, eta sarritan, nire lagun vietnamdarrek ere, halaxe egiten dute.

–Egun bete xamarra dut gaur eta Tuan lagun zaharraren patxadaren bila etorri naiz, honek tai txiak baino gehiago lagunduko didalakoan.

–Ez da aukera txarra, ez. Tuan ernegaturik ikusten du-
dan egunean, ni neu ere zerbait izugarriaren beldur izango
naiz.

–Halaxe da bai, gizon honen patxada ordain ezinezko
altxorra da.

Eskua sakelara eraman eta 20 dong eman dizkiot Nhani.
Honek buruarekin eskerrak eman eta bezero bereziei bakarrik
ematen dien erretiluaren gainean jarri dizkit bi katiluak.

–Amaitu bezain laster itzuliko dizkizut azpila eta ka-
tiluak.

–Lasai, Kolia.

–Gero arte, Nhan.

–Agur, bai.

Beraz, erretilua esku artean hartu eta etorri baino arreta
handiagoaz, egindako bidetik itzuli naiz. Oraingo honetan
Hanoitar zintzoek nire bidetik aldentzeko faborea egin di-
date, borondate onaz gain, ni bezalako kankailu zahar baten
pultsuaz jada fida ezin daitekeela pentsatu eta, kiskalirik
amaitu nahi ez dutelako.

Tuanengana iritsi naizenerako, lepagaineko izerdi iturri
xumeak, ipurdi parean, ur emari haziko erreka bilakatu
direla nabaritu dut. Gaur ere gogor berotu behar duelakoan
nago. Hala ere, ez naiz kexatuko, Leningradeko negu hotze-
tan hazi eta bizitu ondoren, eguzkiaren berotasuna, arnaste-
ko behar den airea bezalako baita niretzat. Tuanen aurrean
bi katiluak utzi ditudanerako, honek banbu zotz pare bi, te
berde egin berriz beteriko ohiko te ontzi zatar bat eta titare
moduko bi edalontzi prest ditu mahai gainean.

Gosaria gertu dagoenez, zatirik zailena geratzen zait: ipoxentzat egina dirudien plastikozko aulkitxo batean esertzea, alajaina. Denda aurrean dituen bizpahiru aulki koloretsuen artean, Tuanek handiena utzi badit ere, eseri orduko lurrean amaituko dudan beldurrez kokarazi dut nire ipurdia. Aulkiak intziri txiki bat egin duen arren, Tuanen begiak nire begien parean jarraitzen dutela bermatu dudanean, arnasa lasai askatu dut. Orain nire zango luzeak kiribildu eta ahal dudan moduan, aulkitxoen laguna den plastikozko mahaitxoaren azpian sartzea bakarrik falta zait. Eskerrak arin nagoen eta hezur bigunak ditudan, bestela, akabo!

Tuanek irriz begiratu dit. Lagunak izanik, nire zailtasunak sarritan ikusi dituen arren, irri maltzur bat lerratzen da bere ezpainetan esertzen naizen bakoitzean.

–Badakik zertan duzuen elkarren antza errusiarrek eta amerikarrek? –esan dit bere hanka meheak eroso luzatzen dituen bitartean.

Isilik eta mozolo aurpegiz begiratu diot lagunari, badaikit erantzuna ezpainen puntan duela, prest, eta ez diot garaipe txiki hori zapuztu nahi.

–Ez duzuela banbuaren berri. Banbua gogorra baina zaila duk, moldagarria, edozein lanetarako erabilgarri gertatzen duk, nola landu jakinez gero. Vietnamdarrak ere hala koxeak gaituk: malguak. Zuek, berriz...

–Bai, Tuan, bazekiat, gu altzairua bezain zinbelak gaituk zuen aldean.

Tuanek irribarrea zabaldu eta buruarekin baiezkoa egin du. Konturatu da ez nagoela bide horretatik jarraitzeko prest.

–Beno, Kolia, ba hik esango duk, banbuaz hitz egin nahi ez baduk, zerk kezkatzen hau niregana hain goiz etortzeko?

–Errusiar enbaxadara joan behar diat, Tuan. Badakik, Txotxongilo Konpainiarekin egin behar dudan bidaia dela-eta, paperak eguneratu beharra neukaan eta pasaporte berrriaren eskabidea luzatu nian. Erantzuna, enbaxadore berrriaren gutun bat iritsi zaidak, ni ezagutu nahi nauela adierazten duena. Gaur goizean geratu nauk berarekin, eta egia esan, beldur nauk. Arraroa iruditzen zaidak pasaporte batengatik zita bat eskatzea. Ez zekiat, beldur nauk iragane-ko zerbaitez galdetu nahi ote didan.

Ez naiz lasai sentitzen eta hori nire ahotsean ere nabari delakoan nago. Arrapaladan hitz egiten dut, arnasestuka, lasterketa bat korritu izan banu bezala.

–Iragana? Zer esan nahi duk? –Tuanen begirada harri-duraz betea ageri da. Goitik behera begiratu nau, inongo disimulurik gabe. Berehala konturatu da ez nabilela txan-txetan, benetan aztoraturik etorri naizela berarengana eta egin duen keinuarengatik ez du oso ondo ulertzen nire larritasuna.

Nik, berriz, begietara begiratu diot errukior. “Tira, Tuan, ez dizkidak gauzak nahi baino zailago jarriko, ezta?”.

–Bai, horixe bera, Tuan, pentsatzen ari haizen hortaz pentsatzen pasatu ditiat azken orduak.

–Vladimir enbaxadorearenaz? –esan du Tuanek apur batean pentsakor egon eta gero.

–Bai, Vladimirrenaz, bai. –Buruarekin gora eta behera egin diot nire erantzunari enfasi handiagoa eman nahian.

Tuanek, ordea, bera ere urduri jartzen hasi delako edo, zopaz gainezka duen katilua behatz artean hartu eta aho parera eramandu.

–Ez diat uste, Kolia.

–Eta orduan zertarako deitu naik, ba?

Tuanek sorbaldak jaso eta mutu geratu da. Ondoren, katilu beroa esku artean hartu, zotzak ondo oratu eta phoa zurruputzen hasi da. Urdaila beterik izanez gero, hobeto pentsatzen baita.